



ONDASUNGABEAK



Save the Children

**EUSKADIKO
ERANSKINA**

Haurren arteko desoreka, aukera-berdintasuna
eta politika publikoak Espainian





"Haur pobrea amets egin ezin duen haurra da."

Neskatoa, 9 urte. Vallecas, Madril.

Koordinazioa:

Ana Sastre
Almudena Escorial

Egileak:

José Ignacio Alonso
Liliana Marcos

Azaleko argazkia:

Mingo Venero

Grafikoak eta irudiak:

Germán Gullón (VALBHY)

Artea eta maketazioa:

Óscar Naranjo Galván

2017KO OTSAILA

Editorea:

Save the Children España



SARRERA

Azken urteetan, 2008. urtean hasitako krisi ekonomiko globalaren ondorioz nagusiki, indartu egin da munduko gero eta desoreka sozioekonomiko handiagoaren inplikazioei buruzko eztabaida. Eztabaida hori sendotu egin da, guztiz arbuigarria baita desoreka ikuspegi etiko eta moraletik, bai eta ikuspegi sozioekonomikotik ere. Desoreka handitu den herrialdeetan, ekonomia moteldu da, eta gizarteko ezegonkortasuna areagotu da¹. Desoreka bereziki kaltegarria da haurtzaroan, ez soilik dituen ondorioengatik, baita neska-mutikoek, oro har, ez dutelako beren egoera aldatzeko aukerarik, eta, askotan, haien familia-inguruak hartutako erabakien eta egindako hautuen mende daudelako. Gainera, desoreka handiagoak dituen gizarte batean, zailagoa da aukera berdinak izatea, eta, beraz, gizarte horretan haurrek hartuko duten lekuak lotura estuagoa izango du haien gurasoek duten lekuarekin: pobrezia handiagoa izateaz gain, pobrezia hori hein handiagoan jasoko dute oinordetzan. Begirada etorkizunean jarrita pentsatzen eta lan egiten duen gizarte batek, bere burua bidezkoztat jo nahi duen gizarte batek, ezin du ezikusiarrena egin haurrek dituzten premien aurrean.

Dokumentu honetan, **Ondasungabeak** txostenaren eranskinean, Euskadiko haurrei eragiten dien desoreka aztertu da, eta, bereziki, honako bi alderdi haue- tan jarri da arreta: gizarte-babesa eta hezkuntza. Informazio gehiago, hemen: savethechildren.es/desigualdad

Save the Children erakundeak prestatu du eranskin hau, Ksnet enpresak aurretiaz egindako datuen eta politiken azterketan oinarrituta.



¹ UNICEF (2012 B): Child Poverty and Inequality, New Perspectives. UNICEF.

DESOREKA ETA POBREZIA ERLATIBOA EUSKADIN

Euskadin, gora egin du desorekak, nagusiki, biztanleria pobretuaren diru-sarrerak izugarri murriztu direlako, gainerako biztanleekin alderatuta. Gorakada hori errenta ertaineko eta errenta baxuko haurren arteko desoreka handitu delako gertatu da batez ere. Kaltetu nagusiak familia gurasobakarrak eta atzerritarrak dira.


Familietan eskuragarri dituzten diru-sarreraren murrizketa ez da proportzionala izan ez estatuan eta ez Euskadin. Abiapuntuko desoreka-maila baxua izan arren eta Europako iparraldeko herrialdeetakoekin konparagarria izan daitekeen arren, 2008. urtetik aurrera gora egin du desorekak, biztanleria pobretuaren diru-sarrerak murriztu egin direlako, gainerako biztanleen diru-sarrerekin alderatuta. Zehazki, 2008. urtetik 2014. urtera, haurtzaroko desoreka, GINI² indizearekin neurtutakoa, 25,6 puntutik 28 puntura igaro da.

Gorakada hori errenta ertaineko eta errenta baxuko haurren arteko desorekak gora egin duelako gertatu da batez ere. Haur pobretuak erdi-mailako klaseetatik urrunago daude: 2008an, errentaren banaketaren erdian zeuden diru-sarrerak % 10 pobreenen diru-sarrerak baino 1,9 aldiz handiagoak ziren; 2014an, berriz, alde hori 2,24 aldiz handiagoa zen. Aldi berean, hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, aberatsenen eta erdi-mailako klaseen arteko aldea egonkor mantendu da.

Haurren arteko desoreka Euskadin

	Gini (<18 años)
2008	25,61
2012	24,29
2014	27,99

² GINI-aren indizeak banakoen arteko sarreraren banaketa neurtzen du zer puntutara arte edo ekonomia barruan etxeak urruntzen du berdintasuneko banaketako. GINI-aren indize bat 0eko berdintasun perfektua irudikatzen du, ehunen (100) indize batek desberdintasuneko maximoa irudikatzen du berriz. Koefizientearen adierazita badator eta ez indizean, balioak hartzen ditu 0 eta 1en artean. Argitalpen honetan GINI beti indizean adierazita dator.



Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Espainiako eta Euskadiko merkatuaren egitura duala da fenomeno horren arrazoia, krisialdietan behin-behineko enpleguak behera egiten baitu nabarmen, eta enplegu hori erdi- eta behe-mailako errentekin eta talde zaurgarriekin lotuta dago. Seme-alabak dituzten familiek pairatzen dituzte egoera horren ondorio gogorrenak, gurasoek neurrigabeki lan egiten baitute behin-behineko enpleguetan.


Bada familia asko oso atzean gelditzen ari direla egiaztatzen duen beste datu bat: pobrezia erlatiboak³ eta larriak⁴ 2008tik 2014ra izan duten bilakaera. Pobrezia erlatiboak ehuneko 8,3 puntu handitu da, eta pobrezia larria, berriz, ia 5 puntu igo da.

³ Atalasea diru-sarreraren erdiko balioaren % 60an jarrita neurtu da.

⁴ Atalasea diru-sarreraren erdiko balioaren % 40an jarrita neurtu da.

Jatorri espainiarreko haurren pobrezia erlatiboa % 22koa da; horren aurrean, jatorri atzerritarreko haurrena % 74koa da.

Haurren pobrezia erlatiboaren eta larriaren bilakaera (EUROSTAT metodoa) 2008tik 2014ra⁵




Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Taldeka aztertzen bada, pobrezia-tasa erlatibo handieneko haurrak Euskadin familia gurasobakarretakoak eta jatorri atzerritarreko familietakoak dira. Azken neska-mutiko horiek jasan dituzte gehienbat krisiaren ondorioak, pobrezia erlatiboaren tasa 14 puntu handitu baita. Familia gurasobakarren kasuan (etxeko burua emakumea izaten da askotan), pobrezia erlatiboaren tasa bikoteez osatutako familienaren bikoitza da.

Euskadin, jatorri atzerritarreko 10 haurretatik 4 biztanleria pobreenaren % 20ren barnean daude.


Haurren pobrezia erlatiboa taldeen arabera



Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

5 Diru-sarreraren EAEko erdiko balioen arabera kalkulatu da.

EAEko haur guztien % 8 etorkinen seme-alabak dira. Haur horien zaurgarritasun berezia errenta-kintilen arabera nola banatzen diren aztertzean egiaztatzen da. 1. eta 2. errenta-kintilen artean daude jatorri etorkineko haurren erdiak.



Iturria: geuk eginga, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Eusko Jaurlaritzak hainbat dimentsio aintzat hartzen dituen neurri bat erabiltzen du duela urte askotik pobrezia eta gabezia islatzeko, eta neurri hori diru-sarreretatik harago doa: (i) metatutako pobrezia, (ii) pobrezia erreala eta (iii) ongizaterik eza.⁶

Euskadiko haurren pobrezia-egoerak Eusko Jaurlaritzaren hainbat dimentsiotako neurriak erreferentziazat hartuta aztertzerakoan, desoreka handia ikusten da gabezia-neurri bakoitzean familia gurasobakarretan edo jatorri atzerritarreko familietan bizi diren haurren artean, nagusiki, ongizaterik eza eta pobrezia errealean.


⁶ (i) Familia batek epe luzera begira bizi-maila egokia izateko beharrezkoak diren kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratzeko duen gaitasun ezarekin lotzen da **metatutako pobrezia**. (ii) **Ongizate faltak**, berriz, familia batek epe laburrean gizarte jakin bateko bizimoduan, ohituretan eta jarduera arruntetan parte hartzeko beharrezkotzat jotzen diren gastuei aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duen egoerari egiten dio erreferentzia.

Haurren pobrezia-egoerak (EJren metodoa) taldeka

Pobrezia mota	Urtea	Orokorra	Bikotea	Guraso-bakarra	Nazionala	Atzerritarra
Pobrezia metatua	2008	2%	1%	8%	2%	2%
	2012	3%	2%	10%	2%	7%
	2014	4%	3%	10%	3%	14%
Pobrezia errealak	2008	8%	5%	35%	5%	37%
	2012	9%	6%	34%	6%	44%
	2014	11%	9%	26%	9%	39%
Ongizaterik eza	2008	13%	10%	45%	10%	57%
	2012	14%	9%	51%	11%	61%
	2014	18%	13%	47%	14%	54%

Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak haurren kasuan erabilitako gabezia-neurriek adierazten dute pobrezia errealak eta ongizate faltak modu kezka-garrian egin dutela gora, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko eremu jakin batzuetan. Haurren pobrezia-terminoetan, egoera kezka-garria da Gasteizen, Aiaran, Bilbon, Ezkerraldean eta Bizkaiko kostaldean.



Haurren pobrezia-egoerak (Eljren metodoa), eskualdeka

Pobrezia mota	Urtea	Gasteiz	Aiara	Eskuinal-dea	Bilbo	Ezkerral-dea	Bizkaiko kosta	Durungal-dea	Donosti-aldea	Tolosa-Goierra	Deba Garaia	Deba Behea
Metatutako pabr.	2008	3%	1%	0%	4%	5%	0%	3%	0%	0%	1%	0%
	2012	2%	0%	1%	5%	4%	2%	0%	1%	6%	0%	0%
	2014	2%	2%	0%	9%	7%	2%	1%	4%	3%	0%	0%
Pobrezia erreala	2008	9%	1%	5%	17%	10%	3%	8%	5%	0%	0%	3%
	2012	12%	4%	8%	17%	12%	3%	7%	4%	11%	2%	4%
	2014	15%	7%	3%	19%	12%	14%	9%	8%	8%	6%	7%
Ongizaterik eza	2008	12%	5%	9%	28%	18%	6%	8%	11%	4%	1%	9%
	2012	16%	6%	11%	20%	18%	7%	19%	9%	11%	12%	13%
	2014	24%	19%	10%	28%	19%	20%	14%	13%	10%	11%	12%

Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

MURRIZTEN AL DU GIZARTE-BABESAK HAURREN ARTEKO DESOREKA EUSKADIN?

Gizarte-transferentziek haurren pobrezia eta desoreka zehazten dituzte Euskadin, bereziki, gizarte-segurantzaren laguntzen (langabezia, pent-sioak) eta EAEko gizarte-babeseko sistemaren beraren eragina aztertzen bada. Hala ere, zaurgarritasuna handiagoa den kasuetan, laguntza horien eragina erlatiboa da haurren artean.

Haurren eta familien gizarte-babeserako inbertsioa ez da oso bidezkoa Espainiako estatuan, eta urria dela ere esan daiteke, Europako beste herrialde batzuek egiten duten inbertsioarekin alderatuta (EBko batezbestekoa haurren eta familien gizarte-babesean BPGren % 2,3 da,⁷ eta Espainiakoa, berriz, % 1,3 da). Ordaintzen diren zergen arabera ematen dira prestazioak, eta beraz, ez dira iristen errenta txikiena duten familietako haurrengana: enplegarritasun baxua duten edo lanik gabe dauden familietako haurrak babes-sare horretatik kanpo gelditzen dira. Zergetan oinarritzen ez den neurri nagusiak, hau da, familiaren seme-alaba bakoitzeko ematen den estatu-prestazioak, estaldura txikia du, eta zenbatekoak (25 euro hilean) ez die aukerarik ematen hurrei pobreziatik irteteko.

Estatuko sistemaren ahulezia horien aurrean, sistema autonomikoak gabezia hori osatzen duen galdetu beharko genuke —errenta txikiena dutenei zuzendutako inbertsio eskuzabal baten bidez—, eta modu egokian egiten duen, krisiak zenbait taldetan izan duen eragina kontuan hartuta.

ESTATUAK ZERGETAN OINARRITUTA EMATEN DITUEN LAGUNTZEN OSAGARRIA

Lehenik, Euskadin, hurrei gizarte-babesa eskaintzeko gastua beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino nabarmen handiagoa da, eta Estatuko altuenetako bat da. 2013. urtean, haur bakoitzeko gastua 7.767 eurokoa izan zen; horren aurrean, Madrilgo Erkidegoan 2.791 eurokoa izan zen, % 64 txikiagoa, hain zuzen ere. 2007tik 2013ra, hurrei zuzen-

⁷ Eurostat.

durako inbertsioaren murrizketa Estatuko txikienetakoa izan zen, % 1,3⁸.

Bigarrenik, laguntza nagusiek onura handiagoak ekartzen dizkiete errenta baxuenei. **Diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE)** eskubide subjektiboko eta aldian behingo prestazio ekonomikoa da, bizikidetza-unitate bateko kide diren eta oinarrizko premiei lotutako gastuei nahiz laneratzeko eta gizarteratzeko prozesu batetik sortutako gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duten pertsonen zuzendutakoa. Prestazio horrekin batera, **Etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO)** eskaintzen da Euskadin; aldian behingo prestazio ekonomikoa da, eta ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzen laguntzeko bideratzen da, alokairua edozein modalitatetarako izanik ere: errentamendua, azpierrementamendua, baterako errentamendua, ostatu-ematea eta logela-alokairua.

Gainera, seme-alabak dituzten familiei zuzendutako eta **izaera unibertsaleko laguntza ekonomikoei** eusten dien autonomia erkidego bakarra da Euskadi. Jaiotzagatiko prestazio ekonomikoa da; lehenengo semearen edo alabaren kasuan, behin bakarrik ordaintzen da: 400 eurotik 900 eurora artean ordaintzen dira, familia-errentaren arabera. Bigarren seme edo alabatik aurrera, prestazio ekonomikoa aldian behingoa bihurtzen da: bigarren semearen edo alabaren kasuan, haurrak bi urte bete arte 1.100 eta 400 euro urtean, hurrenez hurren; hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familien kasuan, haurrak sei urte bete arte ematen da prestazio hori.

Hurrengo hiru taulen lehenengo zutabeetan, desoreka-neurriak adierazi dira (GINI eta errenta-taldearen arabera diru-sarrerak), eta haurrek, haien gurasoen lanaren arabera, zenbat diru duten eskuragarri hartu da kontuan. Ikus daitekeenez, lan-merkatutik eta beste errenta batzuetatik jasotako diru-sarreraren desoreka nabarmen handitu da krisialdian, eta GINI indizeak modu kezkagarrian egin du gora (2008an: 30,3; eta 2014an: 36,3). Hurrengo bi zutabeek Estatuak Gizarte Segurantzaren bidez emandako gizarte-prestazioen (erretiro-saria eta langabezia-saria, nagusiki) eragina eta autonomia-erkidegoek hartutako neurri nagusien (Diru-sarrerak bermatzeko errenta, Etxebizitzarako prestazio osagarria eta Gizarte-larrialdietarako laguntza⁹) eragina aztertzen dute.

8 UNICEF 2015, Haurtzarora aurrekontuetan. Haurrekin lotutako politiketan Espainian egindako inbertsioaren estimazioa, eta 2007tik 2013ra arteko bilakaera.

9 Gizarte-larrialdietarako laguntzak ez dira aldizkakoak, dirutan ematen dira, subentzio moduan eman ere. Gizarte-bazterketarik gerta ez dadin edo halako bazterkeriak konpontzeko behar-beharrezkoak diren gastuak ordaintzeko nahiko baliabiderik ez dutenentzako dira, eta berdin dio dena delako gastua arrunta edo ohiz kanpokoa den.

Haurren GINI			
	Lan-merkatuko transferentziarik edo diru-sarrerarik gabe	Gizarte Segurantzaren eta Gizarte Laguntzaren transferentzien ondoren	DSBE, EPO eta GLL ondoren
2008	30,29	27,14 (-3,15)	25,61 (-1,63)
2012	30,00	26,78 (-3,21)	24,29 (-2,5)
2014	36,28	31,78 (4,49)	27,98 (-2,7)

Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Erdiko errentako diru-sarreraren eta biztanleriaren % 10 pobreeneko haurren arteko erlazioa			
	Lan-merkatuko transferentziarik edo diru-sarrerarik gabe	Gizarte Segurantzaren eta Gizarte Laguntzaren transferentzien ondoren	DSBE, EPO eta GLL ondoren
2008	1,76	1,98	1,90
2012	1,69	2,39	2,04
2014	1,85	4,13	2,24


Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Biztanleriaren % 10 aberatseneko haurren diru-sarreraren eta erdiko errentako familietako haurren arteko erlazioa			
	Lan-merkatuko transferentziarik edo diru-sarrerarik gabe	Gizarte Segurantzaren eta Gizarte Laguntzaren transferentzien ondoren	DSBE, EPO eta GLL ondoren
2008	2,46	1,7 (-0,76)	1,7 (-0)
2012	3,35	1,6 (-1,73)	1,6 (-0)
2014	12,96	1,75	1,75

Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Gizarte Segurantzaren laguntzen (langabezia-saria eta erretiro-saria, nagusiki) emaitza hiru tauletako bigarren zutabean jaso da, eta laguntza horiek baliagarriak izan dira krisiak pobrezia erlatiboko egoeran dauden haurrengan izandako ondorioak guztiz arintzeko. Bigarren taulan ikus daitekeenez, biztanleriaren % 10 aberatseneko familietako haurren eta erdiko errentako familietako haurren diru-sarreraren arteko erlazioa doitu dute. Hala ere, prestazio horiek ia ez dira iristen errenta baxueneko taldeetako haurrengana, eta, beraz, erdiko mailako errenten eta biztanleriaren % 10 pobreeneko familietako haurren arteko desorekak izugarri handitu dira (1,85etik 4,1era). Aitzitik, zergetan oinarritzen ez diren gizarte-prestazioek (DSBE, EPO edo GLL) diru-sarreretan gertatzen den arrakala horren zati bat (soilik) murriztea lortzen dute (4,1etik 2,2ra).

Logikoa dirudi pentsatzeak Euskadiko sistemak estatukoa hein batean soilik osatzen duela, eta diru-sarrera txikieneko pertzentilak direla sistema horren lehentasunak. Azterketa hori bera pobrezia-erlatiboaren adierazleetara eraman daiteke; ondorengo bi koadroetan adierazi dira. Errentaren erdiko balioaren % 60 den pobrezia-atalasean, familia gurasobakarreko eta jatorri atzerritarra duten familietako haurrek jasaten dituzte gehien pobrezia-erlatiboak. Pobrezia-erlatiboaren neurri horretan, DSBEk ia ez du eraginik –familia gurasobakarreko haurren kasuan izan ezik (% 57tik % 49ra murriztenda)–, eta estatutik iritsitako prestazioek eskaintzen dute onura gehien.




Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Aitzitik, pobrezia-atalase txikiagoa kontuan hartzen bada (medianaren % 40), DSBEren eragin nabarmena ikus daiteke familia gurasobakarreko haurrengan (% 42tik % 11ra) eta jatorri atzerritarreko familietakoe-tan (% 52tik % 33ra).



Haurren pobrezia larria, transferentzia autonomikoen aurretik eta ondoren



Iturria: geuk egina, 2008tik 2012ra arteko EPDSn eta 2014ko ENSn oinarrituta.

Beraz, oraingoan ere ondoriozta dezakegu Euskadiko gizarte-babeserako sistemak estatuko sistemaren laguntza iristen ez zaiona babesten duela; baina, pobrezia modu esanguratsuan murrizten duen arren, ez da gai erabat desagerrarazteko.

Euskadiko haurren % 9 pobrezia larrian bizitzea ez dagokio hondar-balio bati. Datuek adierazten dutenez, haur horietako askok jatorri atzerritarra dute, edo familia gurasobakarretan bizi dira; hala ere, beharrezkoa da familia moten azterketa sakonagoa egitea, inkestak jasotzen duen lagina ez baita nahikoa (non bizi diren, zer ikastetxetara joaten diren eta zein den gurasoen lan-egoera). Haur horiek modu egokian garatzeko, gizarteratzeko eta gaitasun kognitiboak, sozialak, emozionalak eta fisikoak barneratzeko, haurren % 9 horrekiko egiten diren ahaleginak areagotu behar dira, bai zerbitzuen prestazioari dagokionez, bai baliabide egokiak hornituz.

DSBE eta beste prestazio autonomiko batzuk eskaini arren, Euskadiko 10 haurretatik 1 pobrezia larrian bizi da.

ZENBATERAINO DA DESOREKATUA EUSKADIKO HEZKUNTZA-SISTEMA?¹⁰

Euskadiko hezkuntza-sistema ez da egokia ikasleen jatorrian oinarritutako desorekak zuzentzeko, eta, horrez gain, ikasleen arteko desoreka horiek areagotzen dituzten elementuak ditu. Desoreka horren ondorioetako bat eskola-errendimenduan dagoen arrakala handia da, ikasleen jatorri kulturalaren arabera: sortzez bertakoa denaren batez besteko puntuazioa jatorri atzerritarra duenarena baino 1,2 aldiz handiagoa da; Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programako (PISA txostena) puntuazioan, berriz, errenta handieneko pertzentilaren eta errenta gutxienekoaren arteko aldea handiagoa da Euskadin (330 puntu) Estatuan (289) eta ELGEko batezbestekoan (287) baino.

Save the Children erakundeak hezkuntzaren arloan argitaratutako azkeneko txostenetako datuen arabera –“*Etorkizuna argituz*” eta “*Hobetu beharra du: atzean inor utziko ez duen hezkuntza-sistema baten alde*”–, Euskadiko hezkuntza-sistemari buruzko ondorio nagusiek eta datu orokorrek honako hau adierazten dute:

Ikasturtea errepikatzen dutenen, eskola uzten dutenen edo porrot egingen dutenen eta absentismoaren tasak ez dira Estatuko gainerako lurraldeetakoak bezain kezagarriak. Estatu-mailan, 15 urteko hiru ikasletik batek gutxienez behin errepikatzen du ikasmila, eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen % 30 inguruk ez du DBHko titulua eskuratzen; Euskadin, ehuneko hori % 14ra murrizten da. Bestalde, Eskola-uzte goiztiarraren tasak (EGT) Espainian (% 23,5) eta Europan (% 12) Euskadikoa baino askoz ere handiagoak dira (% 9,9); Euskadikoak Europak 2020rako ezarritako helburua betetzen du (% 10).

Euskadiko Eskola Kontseiluak “*Hezkuntza Euskadin 2012-2013*” txostenean ohartarazten zuenez, Euskadiko hezkuntza-sistema jasaten ari den murrizketa nagusiek hezkuntza publikoari eragiten diote. Eusko Jaur-laritzak gizarte-bazterketa jasateko arriskua duten ikasleei eta profil sozioekonomiko apalagoa duten ikastetxeei baliabideak eman behar dizkiela ere jasotzen du, “jatorrizko gabeziak konpentsatu ahal izateko eta ikasle guztiek konpetentzien garapen-maila lortzeko”.

¹⁰ https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/necesita_mejorar_veusk_eus_web.pdf HOBETU EGIN BEHAR DA - [savethechildren.es](https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/necesita_mejorar_veusk_eus_web.pdf)<[https://www.savethechildren.es](https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/necesita_mejorar_veusk_eus_web.pdf)<<http://www.savethechildren.es>> HOBETU EGIN BEHAR DA Inor atzean uzten ez duen EUSKADI hezkuntza-sistema baten alde Eranskina.


Euskadin Hezkuntzan egiten den inbertsioa BPGren % 5 da, Eustaten datuen arabera. Ikasle bakoitzeko inbertsio publikoa 6.475 eurokoa da urtean, Espainiako altuena, Hezkuntza Ministerioak emandako datuen arabera. Hala ere, 2009. urtetik, behera egin du hezkuntzako gastu publikoak, eta, bien bitartean, modu iraunkorrean egin du gora familiako batezbesteko gastuak irakaskuntzan: 2007tik 2012ra, biztanleko inbertsio publikoa 888 euro murriztu zen haur bakoitzeko. Horrekin batera, familietako gastuak pisu handiagoa hartu du, % 38,79 handitu baita 2009tik 2013ra bitartean.

Hezkuntza Ekitate Indizea prestatzeko aztertutako adierazleetan Euskadi lehen postuan dagoen arren, beste autonomia-erkidego eta hiri autonomo batzuekin alderatuta nahiz Europako Batzordeak zehaztutako adierazleen betetze-maila kontuan hartuta, zenbait erronka hartu behar dira aintzat Euskadik etorkizunean garatuko dituen hezkuntza-politiketan, berdintasunaren eta ekitatearen ikuspegitik, zehazki. Izan ere, gai horiek aintzat hartu dira jada zenbait erakunde adierazgarri egindako txostenetan, hala nola Arartekoak eta Euskadiko Eskola Kontseiluak egindakoetan.

0-3 URTEKO HEZKUNTZA

Haur-hezkuntzako sarbidea da, ziurrenik, politika publikoan banaketa handiena ziurtatzen duena eta epe luzeko inbertsio gisa itzulkin gehien ematen dituen. Etapa horretan indar handiz garatzen dira haurren funtzio fisikoak, kognitiboak eta emozionalak. Egoera zaurgarrian bizi diren haur askoren kasuan, hezkuntza-ziklo horrek haien garapena sendotuko luke, eta aurrera egiten eta sozialki gora egiten lagunduko lieke.

Haurrentzako zentro batera edo haurtzaindegira doazen 0-2 urteko haurren ehunekoa, kintilen arabera asimilagarria (2014)



Iturria: geuk egina, 2014ko ENSn oinarrituta.¹¹

¹¹ 3 urtetik beherako haurren banaketan oinarrituta egin dira kalkuluak. Banakako biztanleria-pisuak erabili dira. Familia-unitatearen errenta eskuragarri baliokide osoan oinarrituta egin dira kalkuluak (kontsumo-unitateetan adierazita). Kalkuluak kontu handiz

Euskadi da Estatuan haur-hezkuntzako zerbitzu gehien eskaintzen dituen autonomia-erkidegoa, eta eskolatzetasa garbia % 52koa izan zen 2013-2014 ikasturtean; ehuneko horrek erruz gainditzen du Europako Batzordearen gomendioa (% 33)¹². Hala ere, desoreka handia ikus daiteke zerbitzu horien eskuragarritasunean, batez ere, kintil baxuena duten, familia gurasobakarretakoak diren (bikote batez osatutako gurasoak dituztenekin alderatuta) eta jatorri atzerritarra duten (gainerako familiekin alderatuta) haurren kasuan¹³. Bereziki garrantzitsua da Haur Hezkuntzako sarbidea gero eta handiagoa izatea, aukera bakarra izango baita gabezia- edo zaurgarritasun-egoeran bizi direnentzat eta familian modu egokian garatzeko inguru egokia ez dutenentzat.

ZEIN ARI DA GELDITZEN 0-3 URTEKO ESKOLATZETIK KANPO EUSKADIN?

Familia Aurrekontuen Inkestaren (2014) mikrodatuaren ustiapenetik lortutako datuen arabera, eskolatutako adin txikikoen ehuneko txikiak ikasketarik gabeko gurasoak edo soilik lehen mailako ikasketak egin zituzten gurasoak (batez ere amak) dituzten familietan ikusten dira.

Gurasoen herritartasunaren araberrako desorekak ere hautematen dira. Jatorri atzerritarreko gurasoak dituzten haurren eskolatzet-maila sortzez bertakoak diren gurasoak dituzten haurrena baino txikiagoa da.

Hala ere, desberdintasun handienak lan-egoeran oinarritutako adierazlean ikusten dira, batez ere, amaren lan-egoeraren kasuan. Ia 30 puntuko aldea dago eskolatutako adin txikikoen ehunekoaren artean, amak lana duen edo ez duen kontuan hartzen bada.

Azkenik, errenta-tarte baxuenaren kasuan ere, hezkuntza-etapa horrekin lotutako kostuek sistematik kanpo uziko lituzkete baliabide ekonomiko urriak dituzten familietako adin txikikoak, edo, gutxienez, eskolatzeko aukera asko zailduko lukete.

ETORKINEN ETA BERTAKOEN ARTEKO ARRAKALA


Euskadin, Eskola-uzte goiztiarrak (EUG) biztanleriaren % 10ari baino gutxiagori eragiten dio. Gainera, PISAren emaitzak ELGEko batez bestekoaren gainetik daude, eta hezkuntza-potentzietatik oso hurbil (Ale-

erabili behar dira, ohar-kopuru mugatua erabili baita beroriek kalkulatzeko (laginen kopuru osoa 299 ohar dira).

12 Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

13 Bi kalkuluen emaitzak 2014ko ENSren datuetan oinarrituta egin dira, baina talde motaren kasuan, ohar gutxi daude familia gurasobakarretakoak edo jatorri atzerritarreko familietakoak diren 0-2 urteko haurrei dagokienez. Horregatik, emaitzak kontuz erabili behar dira talde horietan.

mania, Finlandia eta Holanda). Hala ere, emaitza horien banaketa ez da inola ere zuzena. Bertako haurren eta haur etorkinen arteko arrakala Estatu osoko altuena da (Errioxak soilik gainditzen du), eta ELGEko altuenetako bat.



Iturria: geuk egina, PISA 2012 txostenean oinarrituta.

ESKOLA-SEGREGAZIOA, ETA ZER ONDORIO DITUEN HORREK IKASKUNTZAN


Ikastetxeetako gizarte-segregazioak eskoletan antzeko profil sozioekonomikoak kontzentratzeari egiten dio erreferentzia. Ikastetxe batean segregazioa handia dela badiogu, esan nahi dugu ikastetxe horretara doazen neska-mutilen profil sozioekonomikoak homogeneoak direla. Azkenaldiko datuen arabera, begi-bistakoa da segregazio handiegia kaltegarria dela zaurgarrienak diren neska-mutilentzat, eta ez da onuragarria ikasle abantailatuenentzat ere.¹⁵

PISA txostenean Euskadik izan dituen emaitzak nahiko onak badira ere, gizarte-segregazioaren ikuspegitik agertzen dituen mailak ez datoz bat hezkuntza-sistema gisa izan behar duen garapenarekin.

¹⁴ PISA 2015 txostenaren atariko emaitzen arabera, batezbesteko puntuazioen aldakortasuna bertakoen eta etorkinen artean altua da. <https://goo.gl/02Bb0w>

¹⁵ Segregazioari, ekitateari eta hezkuntzaren aurrerabideari buruzko azalpen zehatzago bat irakurtzeko, ikusi ELGE (2013).

Gizarte-segregazioa ikastetxeetan (PISA 2012)



Iturria: geuk egina, PISA 2012 txosteneko datuetan oinarrituta.

Ikastetxeetan antzeko profil sozioekonomikoak biltzeak betikotu egiten du berdintasunik eza, batez ere “okerreko ikastetxea” egokitzen zaienei begira. Hezkuntzaren aurrerabidean, atzeratasun-maila handiagoak izaten dira eskola horietan; errepikatu egiten dute askok, eta eskola-porrota etorriko da beste askotan hortik. *“Hobetu beharra du: atzean inor utziko ez duen hezkuntza-sistema baten alde”* txostenak erakutsi zuenaren ildotik, oinarri-oinarrizkoa da hezkuntza gizarteko desberdintasunak edo berdintasunik eza murrizteko eta gurasoen eta seme-alaben artean pobrezia-zikloa eteteko; baina hezkuntzak bere funtzioa bete dezan, ez da nahikoa guztiek eskuragarri izatea; horrez gain, bidezkoa izan behar du. Ikasle bakoitza bere beharren arabera (behar sozialak, ekonomikoak edo fisikoak) tratatu behar du hezkuntza-sistemak, guztiek aukera berberak izan ditzaten, eta guztiek izan dezaten arrakastarako aukera.

Errepikatzean datzan politikak argi erakutsi du ez dela batere arrakastatsua izan. Garestia izateaz eta bidezkoa ez izateaz gain (ELGEk dioenez, errepikatzen duen ikasle bakoitzeko 20.000 euroko kostua du zergadunentzat), politika horrexek du eraginik handienetakoa hezkuntza-sistema garaia baino lehen uzterakoan. Ildo horretatik, Euskadi da estatu osoan errepikatzailer gutxien dituen autonomia-erkidegoa: DBHren amaieran, % 21 dira errepikatu dutenak. Dena den, oso tasa altua da ELGEko batezbestekoarekin alderatzen badugu (% 12)¹⁶. Diru-sarrera gutxiko familia bateko ume batentzat, errepikatzeko probabilitatea 2,4 handiagoa da diru-sarrera handiko familia bateko ume ba-

¹⁶ PISA 2015 txostenaren atariko emaitzen arabera, errepikatzailer tasa Espainian 2012koarekiko nabarmen txikiagotu bada ere (% 34tik % 31ra), soilik Euskadin egin du gora errepikatzailer proportzioak, ehuneko bi puntutan. (% 24). <https://goo.gl/02Bb0w>

tentzat baino, baita irakurtzeko, idazteko eta matematikarako gaitasun berak dituzten bi ume badira ere.¹⁷

Euskadiko errepikatzaileen datuei erreparatzen badiegu, nahiko garbi ikusten da zenbait ikastetxetan errepikatzaile ugari biltzen dela, beste autonomia-erkidegoetan baino argiago. Zehazki, ikastetxeko errepikatzaileen tasan dauden aldaerei buruzko zenbait adierazlek argi erakusten dute errepikatzaileak oso kontzentratuta daudela Euskadin, beste autonomia-erkidego batzuetan gertatzen denarekin alderatuta. PISA 2012 txosteneko datuen arabera, errepikatzaile gehien biltzen diren ikastetxeen % 20 hartzen badugu kontuan, errepikatzaileen % 38 dagokiela ikusiko dugu.¹⁸ Horrek esan nahi du neska-mutil asko etenik ez duen kate batek lotuta daudela, eta haien bizi-ibilbidea eragozten duela kate horrek.

Bestalde, publikoak izan ohi dira ikastetxe horietako gehienak: PISA 2012 txostenean, titulartasun publikoko eskoletako ikasleen zenbatekoa % 46koa zen, baina errepikatzaileak ez dira proportzio berean sartzen eskola horietan (errepikatzaileen % 62 dagozkie eskola horiei). Etorkin gehieneko ikastetxeak dira (% 66tik gora dira etorkinak), eta, oro har, errenta txikiko familietako haurrak.

Datu horiek nahiko argi hitz egiten digute, beraz: Euskadin haur gehienek ikaskuntza-prozesu egokia badaramate ere, bada gutxiengo bat prozesu horietatik kanpo gelditzen dena, errenta txikiko kintiletik eta familia etorkinetatik datorrena. Beraz, berretsi beharra dugu euskal hezkuntza-sisteman behar-beharrezkoa dela ahalegin handiagoa egitea, bai ikastetxeetan gizarteratze-maila handiagoa lortzeko eta bai talde horiei arreta pertsonalizatua eskaintzeko.



17 KSNETen kalkuluak, PISA 2012 txostenean eta ELGEn oinarrituta (2014).

18 KSNETen kalkuluak, PISA 2012 txostenean oinarrituta.




GOMENDIOAK



GIZARTE-BABESA

- Ezinbestekoa da azterketa sakon eta oso bat egitea, bai eta etengabeko jarraipena egitea ere, LANBIDEn datu administrazioak eta beste inkesta batzuetakoak erabiliz, haurren babesaren ikuspegitik diru-sarrerak bermatzeko errentek, etxebizitza-prestazio osagarriek edota gizarte-larrialdietarako laguntzek zer-nolako eraginkortasuna duten balioesteko; xede horretarako, errenta-taldeak, kolektiboak eta eskualdeak bereiz daitezke. Gizarte-babeserako tresnez gogoeta egiteko Eusko Legebiltzarraren eskariz Eusko Jaurlaritzak abiarazitako prozesua gizarte-eragileengana eta haurrekin eta familiekin lan egiten duten erakundeetara zabaldu beharra dago gainera.
- Kolektibo zaugarrienetatik datozen haurren behar bereziei hobeto erantzuteko, gutxieneko errenten eta etxebizitzarako laguntzen sistema sakondu eta hedatu beharra dago, haur horiek pobrezian bizi direlako eta gabezia material larriak dituztelako.
- Aurrez adierazitako guztiagatik, ezinbestekoa da haurrei eta familiei zuzendutako estrategia berri bat onartzea eta ezartzea, eta, ildo horretatik, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko Plana (2011-2015) gaiztozea. Etorkizuneko estrategia horrek prestazioekin eta familia eta lana bateratzeko politika publikoekin ere lotutako neurri integrakoei heldu behar die. Gainera, aurrekontuen ikuspegitik hornitutako plana izan behar du, haurrei eta familiei zuzentzen zaizkien diru-sarrera publikoen ehunekoa handitzeko.
- Guraso bakarreko familiekin jasotzen dituzten laguntzak eta familia ugariak jasotzen dituztenak parekatu behar dira.

HEZKUNTZA



- **Finantzaketa:** krisi aurreko hezkuntzako inbertsio publikoen maila berreskuratzea pixkana.
- **0 urtetik 3ra bitarteko hezkuntza:**
 - Kuoten murrizketan aurrera eginez jarraitu beharra dago, tarifazio sozialen eta ordainketa-salbuespenen erabilera

Euskadiko Haurreskolak partzuergoko zentro publiko guztietara zabalduz.

- Hezkuntza-ziklo honetan diru-laguntzak emateko ezarritako atalasea berrikusi behar da, bai eta Haurreskolak partzuergoan eskolatuta ez dauden ikasleentzako zenbatekoak ere.
- Bidegabekeriazko egoerak saihesteko, Haurreskolak partzuergoan lekua izateko puntuazio-irizpideak aldatu behar dira:
 - Lan ordainduak dituzten gurasoentzako puntuaziorik altuena bi puntukoa da 2016-2017 ikasturterako; langabezia daudenek puntu bat soilik dute. Horrez gain, lanean ari ez diren gurasoen edota modu irregularrean lan egiten duten gurasoen familiek ez dute punturik jasotzen; hortaz, egoera zaugarrienean dauden familietatik datozen haurrak zigortzen dira, lehen batean.
 - Haurreskolak partzuergoko zentroetan, guraso bakar izaera irizpide puntuagarritzat hartzen da, baina ez da hala Eusko Jaurlaritzaren 35/2008 Dekretuan, martxoaren 4koan. Familia horien ezaugarrietan oinarrituta, kontuan hartu behar litzateke hori ere.
- Egoera zaugarrian edo bazterketa jasateko arriskuan dauden familien artean, informazioa emateko eta sentsibilizatzeko kanpainak egin behar dira, eskolatze goiztiarrak duen garrantzia ikusarazteko.
- **Eskola-segregazioa:**
 - Eskola-segregazioaren aurka egiteko, hezkuntza-politikako plan bat definitu behar da, Euskadiko ikasleek hezkuntzan duten sarbidean ekitatea bermatzeko, bakoitzaren jatorria edo egoera alde batera utzita. Zenbait politika-modu zehatz gara daitezke horretarako:
 - Eskolatze-eremu berean, horrelako profila duten ikasleentzako gehieneko eta gutxieneko ratioak ezartzea ikastetxeko, eta kontrol-mekanismoak definitzea, aipatutako kontzentrazio hori bultzatzen duten egoerak zaintzeko eta zuzentzeko.
 - **Euskadin datozen ikasturteetan lantzeko proposatuko diren plan, agindu eta dekretuak ekintza-plan positiboekin osatzea, gizartearen ikuspegitik konplexuenak diren zentroetan. Horrela, zentro horien osaera soziala orekatu egingo litzateke (baliabide gehiago eta hobeak, shock**

planak, irakasle laguntzaileak, laguntza pedagogikoa, etab.)

- Bidegabekeriak sustatzen dituzten sarrerako irizpideak kentzea, hala nola ikasle izan diren guraso eta neba-arrebei lehentasuna ematea, eta zentroen esku gelditzen den “beste irizpidea”.
 - Hezkuntzaren doakotasun benetakoa bermatuko duten mekanismoak ezartzea, ikastetxe publikoetan nahiz itunpekoetan jarduera osagarrietarako familiak egin ditzaketen ekarpenetan maximoak ezarriz.
 - Itunpeko eskolek egin dezaketen ikasleen aukeraketa kontrolatzeko, hezkuntza-ikuskaritzaren gaitasunak indartzea, eta neurri egokiak hartzea.
 - Itunpeko eskola erlijiosoek erlijio katolikoaz gain aukerara beste ikasgai bat eskaintzen dutela ziurtatzea.
- Ikasle etorkinei laguntzeko hezkuntzako II. Planari begira, eta kultura-arteko eskola inklusiboaren esparruan (2016-2020):
 - Epe laburrean, behar-beharrezkoa da eskolan laguntza, euskarria eta orientabidea emateko programak sustatzea, eskola uztean datzan fenomenoak saihesteko.
 - Epe luzera, nahitaezkoa da zentroa aukeratzeko mekanismoak indartzea, errenta txikiko ikasleen, guraso bakarreko familien edo familia etorkinen aniztasuna handiagoa izan dadin emaitza onenak lortzen dituzten ikastetxeetan. Hainbat aukera daude gai horri aurre egiteko, hala nola eragin-eremuak aldatzea, eskola-garraiorako programak edo kuotak txertatzea edota errenta txikiko familiei zuzendutako informazio-programak, bizi diren auzotik harago ikastetxea aukeratzeak duen garrantzia ikusarazteko.
 - Desorekari eta berdintasunari buruzko debatea enfokatu egin behar da berriro krisiaren testuinguruan, Euskadin krisiak gehien eragindako kolektiboen errealitatea agerian jartzeko, kalterik handiena ez baitzaie egin errenta ertaineko familietako haurrei, errenta txikienetakoei baizik.
 - Euskal geografian, pobrezia-egoerak, materialen gabezia, etxebizitza-arazoak edota eskolako bidegabekeria-egoerak oso ardaztuta daude, eta, horregatik, sentsibilizazio-prozesu askotarikoak garatu behar dituzte erakundeek horrelako egoeren inguruan. Bereziki, alderdi hauek azpimarratu nahi dira: (i) pertsonen etorkizuneko garapenerako haurtzaroak betetzen duen funtzio nagusia, batez ere bizitzako lehen urteetako; (ii) gizartearen eta ekonomiaren aurrerabiderako, haurrei zuzendutako inbertsio-politiken eraginkortasun handiagoa, kostuari eta onu-

rari begira; (iii) haurren esparruko lehentasunak zehar-lerro gisa txertatzea gobernuaren esparru guztietan.

- Ezinbestekoa da haurren ongizateari buruz eskuragarri dauden datuak biltzen eta ematen jarraitzea, kontuan hartuta esparru horretako neurri subjektiboak, horrela, Euskal Autonomia Erki-degoko neska-mutil guztien garapenaren jarraipen zorrotzagoa egiteko.








ESKERRIK ASKO

Eskerrik asko haurren desberdintasunaren gaineko txosten eta ikerketa honen lanketa prozesuetan aktiboki parte hartu zuten 130 haur baino gehiagori. **Haien begirada, hitza eta esperientzia funtsezkoak izan dira gure lanerako.**



SAVETHECHILDREN.ES



Save the Children